

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4301

195/2014 DEKRETUA, urriaren 7koa, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluaren kideak izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorreko portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren 2. artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Bilbokoa eta Pasaia-koa sartzeko portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta interes orokorreko portuek bakoitzak bere autonomia-erkidegoan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak zenbait neurri ezarri ditu erkidegoek portu-agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten, agintaritza horiek baitira portuak zuzentzen dituzten organo publikoak.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

«1.— Administrazio Kontseilua hurrengo kideek osatzen dute:

a) Entitatearen Burua, Kontseiluarena izango dena.

b) Berezko kide batek; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 eta gehienez 13 kidek. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da kopuru hori. Autonomia erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopurua ezartzea, baita kideak izendatzea ere.

2.— Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, aurreko paragrafoko c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatuko dituzte hurrengo irizpideak errespetatuz:

a) Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko dute itsas kapitainak ez ezik, beste hiru kidek, euren artean bat estatuko abokatua izango dela, eta, beste bat, Estatuko Portuak erakunde publiko-koa.

b) Autonomia-erkidegoa kide horietako lauk eta lehendakariak ordezkatzeko dute.

c) Kanariar uharteetan, kabilgo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuko zerbitzugunea hartzen duten udalerriek kontseiluaren gainerako kideen % 33ko ordezkari izango dute. Zerbitzugunea udalerri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, ordezkari, lehenik, portu- agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena ematen dien udalerriari edo udalerriei egokituko zaie; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eraginpean duten azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari izango dira: Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberei, orain Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabi-

gazio Ganbera Ofiziala, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Kideen izendapena nahitaez egin beharko da administrazio-kontseiluan ordezkatura dauden administrazio publikoen eta erakunde nahiz antolakundeen proposamena kontuan hartuta. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, proposamen hori Estatuko Portuak erakunde publikoaren lehendakariak egingo du.

Administrazio-kontseiluko kideen izendapenek, 1. paragrafoko c) idatzi-zatiak aipatutakoek, lau urteko iraupena izango dute, berriztatzeke aukerarekin, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontseiluko kideak kargutik kentzea autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakiko du, mahaikide horiek ordezkatzeko dituzten organizazio, antolakunde eta erakundeei hala proposatuta».

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 4. artikuluan eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko urriaren 7an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Ondoren zehazten diren administrazio publikoen, entitateen eta erakundeen izenen jardungo duten pertsonak, beheago zehazten dira, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea:

Zierbenako Udalaren ordezkari: Marcelino Elorza Talledo jauna.

Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera Ofizialaren ordezkari:

– Juan Arana Uriarte.

– José Manuel de la Sen Larrea.

ELA-STV erakunde sindikalaren ordezkari: Esteban Pereda Esteban jauna.

AZKEN XEDAPENA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari bokal berrien izendapena jakinarazten zaion egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak dekretu honek, eta, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Gernika-Lumo, 2014ko urriaren 7a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.